

Ille onek —zèmendiak—, eriotza dakarsku burura. Eriotza, bai. Ezta kristiñauen gauzea eriotza gogoratutea, gizonaren oitura zar bat baiño. Erri guztietan ospatuten da illen eguna. Kristiñauok zementian egiten dogu illen eguna, eta eriotza kontuan eukiteko be, auxe denporarik onena. Eriotza. Egi garratza askontzat. Baiña, danontzat egi biribilla. Ez-takigu noiz, non edo zelan, baiña ezagutuko dogu nonoiz eriotza, ezkara betikoak-eta. Betirakoak, barriz, zorionez, ba-gara. Eta au da egi goxoa guretzat. Itxaropenez beterik jartzèn gaitun egia.

Bildurrez begiratuten deitsagu eriotzari. Ezta arritzekoa, ze gorputzari ejako gustetan ezereztutea. Bizitzaren zentzuna bizi-bizi dogularik, berez jatorku alako ikara dardakada bat: ori abereeri pasaten jakkee. Baiño, gu, arimaren partetik beste munduan betirakoak garanez, beste pentsamentu batzuek izan bear doguz kontuan: eriotzaren sentidua gure bizitzan, kontuixu.

ezkara betikoak, eta bai betirakoak

ANAITASVNA

(ERIOTZAREN JATORRIA)

Eriotzaren izan-bearrak, garrantzi asko izan dau gizonaren barnean, eta alde guztietako gizonengan gaiñera. Ezta, ez, fenomeno kaxkar bat, beste fenomeno asko lez. Gizonak kastigu bat bai litzan artu dau beti eriotza. Guk ere, berez sentitzen dogu pekatuaren lege bat lez. Orixe berori

erakusten deusku liburu Santuak —Bibliak— bere lenengoko lerroetan: Jaungoikoak betirako egin eban gizona, baiña demoniñuaren bidez sartu jaku eriotza mundu onetan.

Eta gaur, señaie bat lez ikusten dogu eriotza, pekatuaren seiñalea, kontuixu.

bizitzak erakutsi

Relaziñoak apurtu dirala-ta gazte askoren artean alkar ikusi ezin aundi bat sortzen da. Bear bada, lentxoago alkarregaz egozanean munduko personarik zoriontsuenak zirala-ta egongo ziran baiña. Ta nik eztakit zergaitik ezin ikusi au.

Asarrerren bategitik izan bada, ezeuken motiburik relaziñoak apurtzeko. Amaika bider aserretuten gara alkarren artean eta urrengo egunean asarratu ezpagaña lez. Polita izango litzake asarre bakotxagaitik laguntarteko maitasun ori apurtu bearra bagendu! Olako asarre bat subertetan danean, onena ainbat ariñen bakea egitea ta lengo moduan lagun segidutea.

Baiña bata bestarentzat egokiak estirala-ta separatu badira? Ba, bardin. Batak besteagaz bizitzeko gauz eztanagaz konturatu bada, urrengo aldiz alkarregaz egoten diranean, edo beintzat alakoen baten, besteari esan leikio zelan alkarregaz bizitzeko egiñak ezfagozan eta oba izango litzakela ainbat ariñen daukezan relaziñoak alde batean ixtea, ba bestela zelan ezkontzan iñoiz eziren alkarregaz zoriontsu izango-ta.

Alako momentu batean orreek ondo artuak izan ez arren apurka-apurka, zenbat egi euren artean euken jakingo dabe separetea dezididuten daben gazteak. Sarri afizionetan gara gu gauza askogaz eta geuretzat kaltegarriak dirala ikusten dogunean itxi egin bear, ta pozik olan da be kalterik ezteuzkuelako egin.

Olako relaziño apurtze baten, ezta laguna txarra dalako ixten, ez. Ba, besteren bategaz ederto konponduko litzake. Problema amen dago: ez bata ez bestea ezta goz alkarrentzat eginda. Orduan ba errua ezta ez batarena ez bestearena.

Ta relaziñoak apurtu arren ez laguntza apurtu, ba relaziño orrek apurtzea batak besteari egin deutsen mezede bat baiño ezta izan-da. Relaziño orrek apurtzeak alkarren arteko laguntasuna eztau zertan apurtu bearrik. Iñoiz mezede bat egileagaitik iñor ezta len maite izan daben bategaz asarratu-ta. Ta ondo neurtu ezkerro, zelako mezedeau! Bizitza oso bateko zoriona!

Baiña jakiña! Olako separaziñoa derrigor miñgarria izan bear. Geure mundu onetan auxe dala lege esan geinketa: ezta la gauza aundi ta onik egiten pena ta miñik barik. Orduan ba ezta miragarria momentu orretan pena ikaragarria sentidutea. Ta pena orren neurria geure alkar maitasunaren neurria izango da. Au bai dala ondo jokatzear! Danak bardin jokatuko balebe!

Ta separaziño orren errua ez iñoiz besteari bota. Ori egiten dauenak ume moduan jokatzen dabela danen bistan ipiñiko leuke... Bizitzan zear edonori jatorkozan ezbearrak eroaten eztakiala argitaratuko leuke-ta. Separaziño baten, ta amen arrazoi onezko separaziño bat dala-ta gabiz, pasetan dana auxe da: alkarrentzat egiñak eztauzala ikusi ta orixegaitik separau. Orduan ba, iñok errurik eztauka... Ta, "erru" ori bestearena bada, biotzez eskerrak emon bearko geunskio, benetako lagun baten moduan portafu da-ta.

Trajedi moduan eztira artu bear olako golpeak. Bizitzan zear golpe asko ta gogorragoak artu bear izango doguz. Ta olan da be burua tente ta ezpanak irribarrez mantenidu bear dira. Triste planteteak ezteusku gauzarik txikiena be konponduko, danerako gogoau kendu baiño.

guk, ikasi

ERIO TZ BIDEA

Pekatuaren eta eriotzaren artuemonak ondo badakusguz, gure bizitzan auxe argi agertuko jaku: pekatuaren bidea ta eriotzarena, bardiñak dirala. Pekatuaren bideari darraikiona, arimaz gorpua da. Eriotza, pekatuagaz bat-bat eginda dago. Orregatik, sarritan, gizonak berak, eriotzagaz kastigatu dau pekatua.


Eriotza, akabatu-bearra baiño zeozer geiago da.

gu gure emengo akabua eztala azkenekoa. Kristok zapaldu eban eriotza, kurtzean il zanean. Ordutik, eriotzaren gaiñetik pasateko almena ta indarra daukogu kristiñauok.

KRISTIÑAUAK ERIOTZAREN AURREAN

Kristoren Eriotza, eriotzarentzat eriotza. Pekatuekatik eriotz orretan gengoan gu. Gaur, biziak gara, "eriotzatik etorrita", San Paulok diñoskunez. Kristori kasu egin deusagu, ta eriotzatik bizitzararteko pausoa

Zemendiak gogortzen deuskuna



JAINKOAK SALBATU DAU GIZONA ERIOTZATIK

Eztago gizonaren eskuetan bere burua eriotzatik ataratzea. Jainkoaren indarra bear dogu. Bera da bizia.

Gizon zintzoak ba-dau itxaropenik Jainkoagan. Baiño itxaropen au utsa ta gauzetana leiteke, mundu onetako mugarriak pasaten ezpadauz. Emendik jatorko gizon siñismenbakoari tristetasuna: mundu au itzi-bearra, betiko akabatu bearra.

Kristo etorri zanetik, barriz, argi dakus-

emon dogu. Beragan siñistuta, eztau eriotzarako bildurrik.

Orain, gure eguneroko biarra gure pekatueri iltea da. Olan artuko dau gure gortza autstuteak sentidu barria. Eriotza, ezta izango ez, bakarrik, gizon guztien patu ausi-esiñezkoa, biotz onez artuko dogun pekatuaren lege bat baiño. Kristiñaua, "Jainagatik iltzen da", gugatik Bera il dan moduan. Orduan, eriotza, gauza samingarri baten orde, zoriona biurtuko da: "Zorionekoak Jaunagan iltzen diranak, aurrerantzian, euren biar-nekeak bastarreratuta, bakan izango dira".

Sarritan entzuten dogun gauza da gaurko munduan laikoak euren zeregin aundia daukela. Ta bene-benetan kristiñiau danak, zeregin au bete egin bear leukela.

Kristiñaua beste gizon guztien moduan mundukoa da, ez munduarena. Bere begiak goi aldean ipiñita euki arren, mundu ontako errealidadeak egunero bere esku artean darabiz. Orduan ba kristiñiau bakoi-tzean elementu bi dagozala esan geinke: bata mundukoa ta bestea kristiñaua. Ta ele-



ELEIZA GU BEBA

mentu bi orretatik eureri jagokezan aktibidade bi sortu bear litzakez, bata, beste gizonak dauden moduko aktibidadea, ta bestea, kristiñiau bateri jagokona.

Baiña aktibidade biok iturri batetik urteten dabe, gizon-kristiñiauagandik. Orduan ba, aktibidade biok ezin leitekez separatu; kristiñiauak ezin lei gauz bat gizon moduan egin, kristiñiau moduan egin barik.

Guk geure kristiñautza orretan mundu ontako problemak eztoguz ezertarako sartzten. Gure kristiñautza domeketako ordu erdi edo ordu batera biurto dogu. Ta ezta ori kristiñiau bateren bizi modua.

LAIKOAK

Kristoren Eleiza mundu ontan apurka-
apurka egitera doa. Ta beti Mundu ta Elei-
za alkarregaz topeka dabiz, alkarren artean
entendidu eziñik. Mundu au Jaungoikoak
egin eban moduan egongo balitza, orduan
berez bere amaiera ta perfeziñorantz joke-
ra eukiko eban. Baiña bitartean pekatua
sartu zan eta orđena guztia ondatu!

Lentxoago esan dodan lez seglarra errea-
lidade bien artean dago: munduan dago
baiña ezta munduarena. Orixegaitik ezin
dau mundua alde batean itxi. Munduak be-
re premiña dauka, ta munduan lan egin
bear dau.

Bere bier ori modu askotakoa izango da.
Batzuk estruktura politiko, ekonomiko ta
sozialak barriztau ta gizonaren dignidadea-
gaz konformeagoak egiten; beste batzuk eu-
ren bizitz bakoitzean gizonekaz daukezan
relaziñoetan benetako kristiñau testimoni-
ñoa emon. Olan edo alan gaurko laikoak
apostoladu direktoa, bizi dan tokian, egin
bear dau, eleizan, katekesisean, karidadezko
zeregiñetan ta abarretan. Bere bier orragaz
Jaungoikoaren Erreiñuaren etorkizuna pre-
parau bear dau.

Bere egite ta lan guztieri sentidu ta fi-
nalidade bat emon bear deutse. Olan mun-
du ontan egon dagoan Jaungoikoaren Errei-
ñua euren testimoniño orregaz argitaratu
bear dau. Ta bere testimoniño ori beste
“ofizio” edo “profesiño” au daukenena bai-
ño be indartsuagoa da medio askotan, aba-
de ta erlijiosoen testimoniñoa euren “pro-
fesiñoak” agintzen deutesen gauzetzat artzen
dabe sarri gizonak eta. Seglar batek barriz
ezteutso iñori olako sospetxarik emoten,
beste gizonen arteko beste bat moduan ar-
tzen dabe-ta. Ganera seglarrak beste orrek
itxi-ta daukezan amaikatxu ate edegi-ta to-
petan dabez.

Orixegaitik Eleizaren etorkizuna laikoen
esku artean dago. Ta Eleizan gero ta erres-
ponsabilidade geiago emoten jakez, Kris-
tiñau guztiak mundu onen salbaziñorako
ekin bearra daukagu, ez bakarrik Azion
Katolika edo olako organizazioetan dabize-
nak. Munduan ezkara geu bakarrik bizi,
ta danok al doguna egin bear dogu mundu
au salbatzeko.

Eleizaren lenengo egunetan karisma asko billatzen dira. Karisma edo grazi onen bidez kristiñauak Jaungoikoaren EGIA argitaraten deuskue. Ta, orratino, Juan XXIII'garrena be onetariko karismatikoæ izan dala pentzau geinke, noski; zeatik berak jarri euskun mobimentuan Konzilio barri au.

Gero azi ziran "Comisión antepreparatoria" deritzaion batzarraren lanak. Onek emonda-ko erantzun guztiak lau liburu andi konponduten dabez 8.240 orriekin.

Ostean Comisiño preparatorioak landu eta aukeratu ebazan Konziliora eroan bear ziren eskema guztiak. Onen lan ta izardiak 74 eske-
ma argitaratu eben.

GURUZ

Konzilioaren Joera Paulo VI'garrenaren gogoan.

Bigarren go ssesiño onetan azaldu zan Konzilio oneri joera ta bide osoa jarri bear eutson gizona: Kardenal Montini berbera, orain Paulo VI biurtuta. Aita Santua "Onak", au da Juan XXIII'garrenak, bere betebearra ederto bete eban. Jangoikoak onen atzekoari jarri eutsozan bere sorkaldan Vatikano II'ko gañerako biarrak.

Bigarren go ssesiñoa inaguratzean Paulo VI garrenak Konzilio onen bete bearrak lau puntutan jarri ebazan:

- 1) Eleizaren kontzientzi edo esagutza.
- 2) Barriztea.
- 3) Kristau guztion batasuna.
- 4) Gaurko mundu onekin alkar-berbeta.

1) Eleizaren ezagutza.

Eleiza Santak bere norberetasuna argitaratu bearra dauko, orraitio. Eleiza misterioa da izan be, eta misterio orren sakontasuna astiro-astiro ausnartu bear dogu.

Aita Santuak, puntu edo tema oneri dago-kionez, Obispoen ganako arloa erakarri deusku, au da: "El tema del episcopado". Gauzak doiezan bidetik, ta pentsau bako arazoan bat azalduten ezpada, Obispo guztien Kolejiotasuna irugarren ssesiñoan aprobaturko da.

2) Barriztea.

Eleizak barriztea bear dau. Onekin, bada, ezto gu esaten Eleiza trastelekura jaurtita aurkiten danik. Eleiza Kristoren gogoen serbitzaille leiala izan da beti, ta barrizte au bear badau be, bere arpegia argitsuago jarriteko da bakarrik.

Zelan lortuko barrizte ori?

Bere barruko ta kanpoko bizitza fede ta karidadearen indarrez eragin ta aundituaz.

3) Kristiñau guztion batasuna.

Irugarren eginbearra "beste kristauengana-
nako" da. Ebanjelio santuan Jesusek gotsu nai izan eban guztion batasuna. Izan be, Kristoren Eleiza bakarra da bere sakramentu ta artzain bakarrakin. Orra ba guztion eginbear Nagusia: guztion batasuna.

4) Gaurko mundu onekin alkar-berbeta.

Konzilioak zubi barri bat nai dau jarri gaurko mundura. Izan be, mundu onen beartasunak aundiak dira, ta aurrerakoan geiagotu egingo dira, ziur. Eleiza, ama errukiorra legez, mundu onen gaixo ta desio guztiak besarkatzera aurreratuten da.

Irugarren ssesiño ko ate aurretan ikuzki-zun auxe emoten deuskue Konzilioak. Asken ssesiñoa eta da?

Konzi- lioari

**EZKONTZA ZER DAN? TIRE, OLAKO PRE-
GUNTIE BE... NIK BA-DAKIT ONDO BAIÑO
OBETO BE ORI —ERANTZUNGO DEUSTAZU
IRAKURLE MAITEA—. ETA JARRAITUKO DO-
ZU: EZTOT BIER ORTARAKO EXPLIKAZIÑO-
RIK, EGITEZ ESAGUTZEN DOT EZKONTZA.
BAI ORIXE.**

**ERRAZOIA DAUKAZU. ZUK BA-DAKIZU.
EGITEZ ZER DAN EZKONTZA, BAIÑA NIK
EMEN IPIÑIKO DEUSTUTAZ EZKONTZ-IDEA
PRINTZIPAL BATZUK. ETE DAKIZUZ IDEA
ONEK?**



EZKONTZA ZER...

Ezkontza zer dan esatea ez da ain gatxa be. Ara berba bitan: **kontra-
tu bat**. Orixe da ezkontza, alkarri berba emotea, promes egitea. Artu-
emon bat da ezkontza. Betiko alkarri berba-emote orrek ondoren aundiak
dakarz. Ezkongaiak ez deutse alkarri ezer saltzen ezkontzarakoan, ezta
erosi be. Ezta ganadu tratua, saillen tratua bez. Neska-mutillak ezkon-
tzakoan nork bere gorputza emoten deutso alkarri. Aragi bat egiten dira:
umea bien artean sortuko dabela esan nai dau... Ez ori bakarrik. An-
dre-gizonak bata besteari dana emoten deutso: **bizia, izate osoa** —zeoze-
lan esateko—.

Bizi diran arte biak batera ibilliko dirala agintzen deutso bata besteari.
Eriotzaraifio bat eginda beti. Ezkontzako kontratuak betebear
aundi bat dau: seme barriak ekarri. Orrek izango dira ezkontzako fru-
turik bikaiñenak. Gaiñera, ezkontzaren bitartez, senar-emazteak, biotz
bat eginda biziko dira. Alkar maitatu, bata besteari eutsi ta lagundu,
nun-nai eta beti. Bai gauza edarra!

Ezkontzak, gizonari babes goxo bat emoten deutso, sukalde bero bat
ipiniñaz; bere etxera arkitzen dau. Zer esan nai ete deusku ba bestela
Paulo Apostoluak Efesoko kristiñaueri onelako au idazten deustenean:
“Origaitik gizonak bere aita eta ama itziko dauz eta bere emazteari
itsatsiko jako, ta aragi bat egingo dira”?

Abi goxo ortan maitatua izango da. Orregaitik naiagoko dau etxea,
kalea baño; barruko pake-giroa, kanpoko zalaparta baño. Ezkontzak
gizonari ohea izateko bide barri bat zabaltzen deutso. Orain arte **no-
baiten** bearrean egoan, bera bakarrik ezan osatzen-ta. Bakoitzak beste
bigarren bat, osagarri bat, topetan dau. Naiz gizonezko naiz emakume,
biak osatzen dabe alkar.

Ezkontzako une artan erabakiten dabe ondorengo bizibide osoa. Bi-
zimodu barri bat asten dabe, onak izaten alkarri lagunduz.

Ba-zekinduzan idea oneek, irakurle maitea? Orain ba-dakizuz ba bein-
tzat. Asi beteten.

Gizona lurra artu?

“Bizibako materialak obehagotuta urtetan dau fabriketatik, gizonak bertan piztiago egiten diran artean”, esaten eban Pio XI-garrenak. Jazoten dana da au, ta urrun joan barik, geure errietan. Eta geugan, bearbada.

Nun topeu geinkio txar oneri bere sustrai us-tela? Gizona gizon lez ez ezagutzean, duda barik. Orainarte, geienbat, gizona gizon lez ez baiño fabriketan gizona biergin lez artu izan da. Esan-barri dodan au obeto adieraziko dot oraintxe, ez daian gure artean txarto-ulertzerik sortu.

Zapal- du? ito?

Ara: Gizona gizon danez artuko balebe ainbeste ugazaba ta patrioiak, ez leukee gorputza bakarrik kontuan eukiko. Gorputzaz gaiñera, gizona beste zer baten jabe be bada, animaduna da. Baiña dana dala ezin geinke ukatu ori. uste ori, gaurrarte ambientean egon dala. Olan uste izan dalako, atan be. Ori dala-ta parkatu bear jakez ainbeste ugazabeeri sarritan beren akats ta utsak, ez daukelako eurek errurik. Zer egingo eben ba eurok jakintsuak be olan uste izan baeben? Eta ori probatzearren es-

perimentuak be egin ziran orduan. Gaur ba-dakigu esperimentu orreik txarto egiñak zirala, faltsoan egiñak, bai.

Gizona makiña bailitzan artua izan da, diñotanez. Mogimentu ori egin daijala, mogitu daijala eskua orretara ta kitto, ori bakarrik eskatuten jaken biergiferi, ta ezin eikeen ezer geiagorik egin, gaiñera. Olan gauzak begiraturik, bistan da bentaja itzelak euki dabezala baserriko bierrak. Or eskua bakarrik ez baiño burua, adimena ta borondatea be ugari erabilli bear diralako.

Itaun bat orain: Ze ondorengo edo ze frutuak ekarri dauz gizonaren bierra olan ikuste orrek?

Gizonaren indarra bakarrik ikusi da askotan. Ta bere intelijentzia? Fabriketan, geienetan, ez, ez da kontuan euki, baiña beste batzuetan ikusi da. Baiña anima, gizonaren obehagotuteko almena, borondatea, ori iñun be ez dala agiri izan baietzta geinke. Ta gizona au be bada, ba. Batez be ori da, gaiñera. Orreri inportantzia ez emotean konsekuentzi negargarriak etorri dira gizadiaren gaiñera.

Ba-dakizu futbolisteri zer pasetan jaken ezta, beti futboleant dabizelako? Ba, ankak indartu, ori bai, baiña biotzak, barriz, indarra galdu. Beste ainbeste gertatzen da, zoritxarrez, gizon asko ta askokin be. Bier klase bat egitean, ta beti axe, ta axe baiño ez, gero ez dakie beste ezer, ez dabe beste ezer ikusten. Profesionalismoa deituten jako onri. Matematika, Fisika, edo beso-indarra, izango da —bardin da—, baiña animako gauzak ez dabe ia ezer konteuko euren bizitzan. Au ez da teoria, munduan pasetan dana da. Bai, mundua trastorneta dago, buruz-bera, balio guztiak aldrebes, espiritua materiaren atzetik. Kristiñau izena daroagunon artean alan danean, zelan zelan, ez ete da izango, ba, orretara beste ainbestenetan?

Ez ete daikegu esan gaur —ta emen—, denpora asko ez dala beheren batek iñoiana: Egiazgo gizonak baiño automobil perfetoak geiago direla? Lotsagarria ezta?

Ta guk, kristiñau garanez, bier egin bear

dogu sendo, estruktura orreik kanbietako. Ia Montini kardenalak esan ebana aurrertuten dogun Bizkaian: “Egunen bat etorko da taller ta soloetatik Jainko-erriaren innoa egingo dana”.